



TXIKITTO!

2021eko abendua 204. zenbakia

**GABON JAI
ZORIONTSUAK!**



AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK.....	11-12
IKASLEEKIN.....	4-5	LEHIAKETA.....	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA.....	15
AITXITXA-AMAMEKIN..	8-9	ZU BAI MARGOLARI...	16
BERBETAN			
NI BAI ARTISTA	10		



Argitaratzailea
“...eta kitto!” Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Maketazioa
Ana Aizpurua

Ikus-entzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Maidar Aranberri

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Gizon batek izozkigileari:

- Eman izozki bat!!!!
- Ze zapore nahi duzu?
- Niri bost axola, gero jausi egingo zait eta!



Ikerrek:

- Aitatxo bizikleta bat erosi didazula egin dut amets gauean. Zer esan nahi ote du horrek?
- Ba horixe, amets egin duzula.

- Astebete daramat jan gabe,
ez dut lorik egiten eta ez dut urik edaten. Zer uste
duzu dudala?

- Tira, ametsa, gosea eta egarria.



Komuna logelarekin hizketan ari da:

- Uste dut nire lana txarrena dela. Beti nago desordenatuta- esaten du logelak
- Bai...seguru – komunak-.

Zer esaten dio harri batek beste harri bati?
“Bizitza gogorra da”.



Andre bat sartzen da harategira eta esaten dio
harakinari: “Txerriburu hori mesedez!!”
Eta harakinak erantzuten dio: “Barkatu andrea
baina hori ispilu bat da!!!”



Zein helbururekin abiatu duzue ezkur-landaketa? Zer egin dezakegu gutxiago kutsatzeko?



BIDEOA



Urkizu eskolako 5. mailako ikasleek kezka handia dute ingurugiroarekiko. Hortik abiatuta, gaian gehiago sakontzeko eta euren esku dagoena egiteko asmoz, zuhaixkak landatzeko proiektua jarri zuten martxan. Horretarako, ezkurak batu eta landatu egin dituzte. Ikasleek ilusio eta konpromiso handiz ekin diote ekintzari, eta ikasturte osoan zehar gaian sakontzen jarraituko dute, landatutako hazten joango den bitartean.

**JIHAN ELMOUS-
SAOUI,
10 URTE**



Proiektu honekin munduan zuhaitz gehiago egotea bultzatu nahi dugu eta, ondorioz, karbono dioxidoa murriztea, oxigeno gehiago emanaz. Horrez gain, beste aukera batzuk ditugu gutxiago kutsatzeko. Adibidez, auto elektrikoek gasolinazko autoek baino gutxiago kutsatzen dute. Planetak berotzen jarraitzen badu, ondorio larriak gertatu daitezke: poloak urtzea, adibidez.

**NUNA AHMED,
10 URTE**



Autoa, autobusa edo bestelako garraioak erabiltzen ditugunean karbono dioxidoa isurtzen laguntzen dugu eta, zuhaitzak landatuz gero, karbono dioxido hori hartu eta oxigeno bihurtu daiteke. Oxigenoa behar-beharrezkoa da gizakiek, animaliek eta landareek bizirauteko. Horregatik, distantzia laburrak egin behar baditugu, bizikletan edo oinez ibili beharko ginateke, ez kutsatzeko.



MARYAM ELAMOUM,
10 URTE

Gure proiektuaren beste helburu bat izan da inguruko zuhaitz-motak landatzea. Inguruan kanpoko espezieak ditugu eta haritza bertakoa da. Proiektu hau garrantzitsua da ingurugiroaren gainean hausnartzeko eta kontzientzia hartzeko. Adibidez, trena erabiltzea autobusean ibiltzea baino hobea da, gutxiago kutsatzen duelako.



AIMAR PADILLA
10 URTE

Karbono dioxidoa gutxituz gero mundu hobea ginateke. Bestela, planetaren tenperatura igo egingo da. Gure esku dagoena egin beharko genuke gutxiago kutsatzeko: garraio publikoa gehiago erabili, oinez ibili ahal bezain beste, ez kutsatu... Ohitura batzuk aldatzea besterik ez da. Adibidez, oso garrantzitsua da plastikoa uretara ez botatzea, animaliak eta itsasoa kutsatu daitezkeelako.



IKER MAGALHAES,
10 URTE

Gutxiago kutsatzeko, adibidez, pertsona baten zain auto barruan egoten bazara, autoa itzaltzea komeni da, horrela gutxiago kutsatuko dugulako. Klima aldaketaren ondorioak larriak izan daitezke eta muturreko fenomenoak sortu ditzake: ekaitz bortitzak, urakanak... Kalte handiak eragin gaitzake gizakiei eta baita animaliei ere.



ELAIA DASILVA,
10 URTE

Ezkur-landaketaren proiektua egiteko, ezkurak batu ondoren, esne-ontziak moztu genituen lurra sartu eta ezkurak landatzeko. Hori bai, beheko aldean zulotxoak egin genizkion, landareak ez itozteko. Orain, lanak banatu ditugu landatutakoa zaintzeko (ureztatu, hostoekin hotzarengandik babestu...) eta, gero, gure zuhaixkak Udalak emango dizkigun beste ale helduago batzuekin trukatu ondoren, Amaña inguruko baso batean landatuko ditugu.



URKIZU

Azaroaren 15ean “Gaztainerre” ospatu genuen eskolan. Guraso Elkartekoek, urtero bezala, gaztainak erre zituzten. Goxo goxoak zeuden! Mailaz maila joan ginen ikustera eta dastatzera. Gurasoei eskerrak emateko, “gaztainerreko” abestiak eskaini genizkien. Bestalde, Ana Apika etorri zen gure eskolara eta 4. mailakoei “Ni neu, zu zeu” ipuina kontatu zien. 5. mailakoak Coliseoan egon ziren Itsaspeko Zinemaldiko filma batzuk ikusten. Itsasoa hobeto zaindu behar dugula konturatu ziren. Abenduaren 3a, “Euskararen Eguna”, egun haundia izan zen Urkizun. Urtero bezala “Euskararen Dorrea” eraiki genuen eskolako sarreran eta eskolako txikienek Gabonetako Zuhaitza ere egun horretan agurtzeko aukera izan zuten. Eta, noski, kantaldia ere izan genuen. Ze ondo ibili ginen!



ARRATEKO ANDRA MARI



Hemen gaude San Andres eta Euskararen Nazioarteko egunak ospatu berri. Ez nahi genukeen bezala, baina Covid protokoloak zorrotz betez, bi egun hauek berezitzoagoak egin genituen!!! Horretaz gain, azaroaren 24an LHko 3. eta 4. mailakoak Ipurua ezagutzeko aukera izan zuten. Bertan, Sheila Elorza eta Xabier Etxeitak “Euskararen baloia”ren ipuina kontatu eta futbol partidu bat ikustera joateko sarrerak banatu zizkieten!!!!

Bestalde, LH5 eta 6. mailakoek, aldaketa klimatikoari buruzko tailerra izan zuten Coliseoan abenduaren 1ean. Eta lehenengo hiruhilekoari amaiera borobila emateko, abenduaren 23an, Olentzero eta Mari Domingiren bisita izango dugu eskolan!!!

SAN ANDRES

San Andresen gizarte aktibo eta inklusiboago baten alde dihardugu. Hegalak zabalik fundazioaren eskutik, azaroaren 25ean, 3. mailako neska-mutilek kirol egokituaren inguruan formazio praktikoa jaso zuten. Gero eta jarduera gehiago antolatzen dira kirol egokituarekin lotutako esperientziak bizitzeko. Kirolak eta jolas egokituak aukera ematen digute esperimintatzeko eta bestearen lekuan jartzeko, baita jolasaren plazerraz gozatzeko ere.





AMAÑA

Aurten ere, Covid-19 dela-eta, Amaña eskolan San Andresak gelaka antolatu ditugu eta gurasoek ezin izan dute parte hartu. Merkatu txiki bat antolatu genuen, bertsoak kantatu genituen eta dantza ere egin genuen, baina, jakina, hori guztia ikastetxe osoan egin beharrean, gelaka egin behar izan genuen taldeak ez nahasteko. Argazkian 3. mailako taldea duzue.



LA SALLE

Azaroaren 29an, San Andres bezpera zenez, eta ohiturak ez galtzeko, hamarretakorako txorizoa jan eta azoka ikusi genuen goizean; arratsaldean, berriz, baserritarrez jantzita etorri ginen denok dantza egiteko prest. Nahiz eta jaia modu desberdin eta berezian antolatu, gurasoak gonbidatu gabe eta taldeak nahastu gabe, primeran pasa genuen eguna!! Abendua euskararen eguna ospatzen hasi ginen, pasiloak marrazkiz eta hizkiz bete genituen eta ahoak euskal doinuz. Bestalde gabonak gertu daudenez, dotore apaintzen hasi gara. Opor usaina nabaritzen da, beharra ere bai, nola ez!!



ALDATZE

Abenduaren 3an Euskararen Eguna heldu zen eta gure ikasleek ikastetxean zein etxean ospatzeko aukera izan zuten. Aingu, gure maskotak, ez du kalerik egin eta urtero moduan eskolan azaldu zaigu, Euskararen Eguna gurekin batera ospatzeko. Egun horretan, zoritxarrez, gela batzuk konfinatuta zeuden baina hala ere ez zen oztopo izan hain egun seinalatua gurekin batera ospatzeko. Batzuk etxetik eta beste batzuk gelan bertan, eta Ainguk lagunduta, egun polita pasatu genuen. Eutsi euskarari!!



J.A. MOGEL

Gabonak gain-gainean ditugu eta konturatu orduko etxean izango ditugu Olentzeroren opariak. J.A.Mogel ikastolako ikasleek bisita berezi eta interesgarria egiteko aukera izan dute: Olentzeroren etxean izan dira!! Bertan Galtzagorriak, Basajaun, Mari Domingi eta Olentzero bera ikusteko eta ezagutzeko aukera izan zuten. Primeran pasatu zuten etxea eta inguruko bazter guztietatik paseatzen. Laster pasatuko da gu guztion etxeetatik!! Gabon zoriontsuak pasa!





Kepa Zulueta eta June Garitaonaindia « Lehengo erreka garbiak ekarriko nituzke 2021. urtera »

Kepa eta June elkartu ditugu oraingoan ... eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan. Kepa Eibarren jaio zen 1950. urtean. Bertan bizi izan da bizitza osoan. Klub Deportiboko tabernan egin du lan azkeneko urteetan, jubilatua zen arte. Hona hemen Junek egin dion elkarrizketa. Gozatu!

Zelan moldatzen zineten eskolan Internet bari-rik?

Ba ondo, ezagutu ere ez genuen halakorik eza- gutzen barren! Arkatzarekin idazten genuen; gero plumillarekin, tintan bustita. Geroago etorri zen boligrafoa, baina oso garestia zen, abera- tsek bakarrik erabiltzen zuten. Batzuetan arbel txiki batean ere idazten genuen.

Denbora librean zer egiten zenuten?

Sasoiaren arabera. Udaberriaren mendira joaten ginen, udan erreka bainatzera eta udazkenean eta neguan ere mendira, gaztainak hartzera eta txabolak egitera. Kanean ordu asko ematen geni- tuen, orain baino askoz trafiko gutxiago zegoen eta lasai ibiltzen ginan, jolasean.

Zein izaten zen zuen merienda?

Ogi zati handi bat txokolate zati txiki batekin. Eta zapatu eta domeketan “txorixopanplona” ogitartekoa espeziala zen, salbuespena! Horri bokadillo “ona” esaten genion.



Noiz izan zenuen lehenengo kotxea?

Nagusia nintzen, 31 bat urte izango nituen. Biga- rren eskuko kotxe zahar bat erosi nuen. Motor txiki bat ere izan nuen, hainbat hilabetez dirua aurreratzen egon eta gero erositakoa.

Eta telebista?

Buenoooo, gure etxean ez zegoen halakorik. Ei-



barko denda bateko eskaparatean jarri zuten bat, zuri-beltzean, eta han egoten ginen denok noiz ixotuko zuten zain. Eta gero kristalaren bestaldean, telebistari begira-begira. Ikusi nuen koloretako lehenengo telebista taberna batean izan zen. Hara joaten ginen denok, telebista ikustera, liluratuta!

Zelan konpontzen zara teknologia berriekin?

Zuk badakizu, gaizki! Beti nabil zuei galdetzen, hau zelan da eta beste hori nola egiten da... Ordenadorerik ere ez daukat, baina behar ere ez! Ez dakat teknologia berrien premiarik, lasai bizi naiz horrela.

"Asteburuko txorixopanplona bokadilloa salbuespena izaten zen"

Zein izan da zure ustez asmakizunik onena?

Labadora eta hozkailua. Etxean erropa txikiak garbitzeko lehenengo ura lapiko batean berotu behar zen eta horrekin garbitzen zuen amak erropa; izarak eta mantak eta horrelakoak, berriz, "labaderuan" garbitzen zituzten andreak.

Ume-sasoiko zer ekarriko zenuke 2021. urtera?

Orduko erreka garbiak ekarriko nituzke. Orain dena dago zikinago. Errekan bainatu egiten ginen eta zapaburuak eta horrelakoak ere harrapatzen genituen.

Euskaraz hitz egiten zenuten?

Etxean bai, den-dena. Gurasoak Eibarkoak ziren, aitxitxa-amamak baserrikoak, eta etxean dena egiten genuen euskeraz. Eskolan, berriz, debekatuta zegoen eta han dena egin behar izaten genuen erderaz. Ni eskolan hasi nintzenean ez nekien berba bakar bat ere erderaz... Pena handia daukat horrekin. Euskera debekatuta zegoenez, erderaz egiten genuen, eskolan, kalean, lagunekin... Eta nahiz eta jakin, asko galdu nuen bai nik eta baita nire belaunaldikoek ere.



Urtzen ari den elurrezko panpina

MATERIALA:

- Kola
- Goma Eva zuri zati bat
- Poliespaneko bolatxo bat
- 4 botoi beltz (txikiak)
- Kartulina laranja
- Fieltro (beltza eta berdea)
- Brillantina
- Makiltxo finak
- Soka estua



NOLA EGIN:

- 1.- Laino itxurako Goma Eva zatitxo bat moztu eta zulotxo egin goiko aldean.
- 2.- Moztu duzun laino itxurako Goma Evan, brotxa txiki bat erabiliz kolaz busti eta bolatxo itsatsi (erdialdean)
- 3.- Kola eman gainontzeko Goma Eva zatiari ere eta lehortu aurretik brillantina ipini
- 4.- Behin kola erabat lehortu denean, itsatsi botoi beltzak bolatxo ipini duzun lekuan (begiak balira bezala). Moztu kartulina laranja zatitxo bat eta itsatsi elur panpinaren sudurra balitz bezala.
- 5.- Fieltro beltza moztu kapelaren forma eman eta gauza bera egin fieltro berderekin, kasu honetan bufanda forma eman. Itsatsi elementu biak zuen elur panpinean
- 6.- Makiltxoak moztu eta besoak balira bezala itsatsi eta zulotxotik soka ipini eta korapiloa egin. Hortxe duzu urtzen ari den elur-panpin zoragarria!

Gabon zoriontsuak opa dizuegu!

Aurtengo gabonak ere ez dira ohikoak izango. Egoerak horrela derrigortuta ez dira gabonetan egin ohi diren ekitaldiak egingo: Olentzero eta Mari Domingiren eta Errege Magoen kalejirak, dantza-ikuskizunak, gabonetako parkea... Ez da erraza inorentzat. Baina ez ezazue ilusioa galdu! Nahiz eta kalejirarik ez egon zaudete ziur zuon danon etxeetara ailegatuko direla Olentzero eta Mari Domingiren eta Errege Magoen opariak! Eta ez ahaztu oporrak hartu berri dituzuela eta egun pila bat dituzuela aurretik familiarekin eta lagunekin gozatzeko. Ondo-ondo pasa jaiak eta hurrengo urtera arte, lagunok!!






HIZKI-ZOPA

JANARIA	U	N	H	A	K	A	R	R	O	I	A	H
Hakarrak	T	X	O	K	O	A	T	E	A	I	K	A
Arrosa	U	N	K	O	U	K	T	K	I	S	A	H
Dilistak	D	I	L	I	S	T	A	S	W	P	O	A
Trokolotia	T	X	O	K	O	L	A	T	I	A	W	T
Gailleta	O	B	Z	X	P	J	A	P	K	L	M	S
Tomatea	H	I	U	P	N	O	Z	O	S	W	I	A
Letxuga	A	T	X	A	S	Z	O	P	A	T	P	D
Kiurria	T	T	R	I	U	A	B	R	A	G	A	S
Sagarra	E	A	T	U	I	S	R	A	S	P	O	B
1. Zopa	L	E	T	X	U	G	A	I	L	E	T	A
12. laranja												

DESBERDINTASUNAK



LABIRINTOA






LABIRINTOA

HIZKI-ZOPA

Hacieta



Joku honetan hasieratik Amalenera bitarteko bidea zuzena.

A	M	B	U	N	O	U	T	Z	A
R	A	U	N	R	R	O	J	U	L
R	R	B	E	R	D	E	A	O	A
O	R	U	J	N	M	I	X	N	R
S	O	B	P	T	N	M	N	T	A
A	I	E	E	J	X	U	O	A	N
U	A	R	N	L	P	U	N	N	J
H	O	R	I	A	T	J	R	O	A
G	O	R	R	I	A	Z	U	E	I
M	O	R	E	A	I	L	A	N	A

URDINA - ARROSA - BERDEA - LARAUNJA
- MOREA - TXURIA - BELTZA - GORRIA -
MARROIA

GURUTZEGRAMA

1.							Garraio bat da eta lur azpitik doa.
2.							Valone bat da eta fruta bat ere.
3.							Idazteko erabiltzen da eta punta beltza du.
4.						Hon lo egiten dugu.	
5.							Eskolako materiala sortzeko baliu du.
6.							Gipuzkoako hiriburu da.
7.							Bideoak, abestiak ikusi ahal dira.



7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **URTARRILAK 14** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkarteak- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa LUKA, txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta zuretako! ZORIONAK!

**Nazkatasuna** 6 urtetik aurrera

Peru Magdalenak eta Mikel Valverdek elkarrekin sortu duten álbun ilustratuak nazka du abiapuntu. Zer da nazka? Noiz sentitzen dugu? Gauza berdinek ematen al digute nazka? Denok sentitzen al dugu berdin? Nazkaren inguruko ipuin bat da.

**Tatxani Handiaren azken trukoa** 8 urtetik aurrera

Tatxani Handiak bere azken ikuskizunean kapelatik ezer atera ezinik geratu zenean, ezin zuen gertatutakoa sinetsi. Magia galdu ote zuen beldur zen, eta orduan azken trukoa akatasari jarraituz iritsi zen benetako mundu magiko batera, trukorik gabekora.

**Errota zaharrako kluba** 10 urtetik aurrera

Egunero bezala, afalondoren, lagunak hitzordua dute jolas-parke txikian. Hitz eta pitz ari direla, halako batean, Beltzanek bizikleta hartu eta ziztu bizian joango da. Biharamunean jakingo dute zertan dabilen. Lagun guztiak bilduko zaizkio abenturara.

**BITXIKERIAK**

Munduko ugaztun zaharrenak bale borealak dira. 200 urte bizi daitezke, 100 eta 120 tona artean pisatzen dute eta 18 metroko luzera izan dezakete.



Kaimana eta krokodiloaren arteko desberdintasunetako bat da kaimanek mihia atera dezaketela baina krokodiloek ez!

Ostrukaren begia bere burmuina baino handiagoa da.





Urdaiazpikoa eta hirugiharra

Orain dela pila bat urte, Txerriki herrian, Hirugiharra eta Urdaiazpikoa etxe txiki batean bizi ziren.


Urdaiazpikoa nahiko xelebrea zen eta adarjotzaile xamarra. Hirugiharra, berriz, oso lasaia eta lagun ona zen.

Behin batean, Urdaiazpikoak hau esan zion txantxetan Hirugiharrari:

- Zu inoiz ez zara ni bezain argia izango -barrez lehertzen.


Hirugiharra, haserrez betea, etxetik joan zen. Urdaiazpikoa triste zegoen, ez zuelako nahi bera mindu.

Urdaiazpikoa korrika atera zen beraren atzetik, baina galdu egin zuen. Ez zuen inon ikusten eta inork ez zuen ikusi. Minutu batzuk pasa eta gero, Koipe arrasto bat topatu zuen, eta hari jarraitu zion. Arrastoa espaloi txiki batean bukatzen zen. Eta hantxe zegoen Hirugiharra.



Urdaiazpikoak barkamena eskatu zion eta biak lagun bihurtu ziren berriro. Hortik aurrera, biak pozik bizi izan ziren eta Urdaiazpikoak ez zion inori burlarik egin inoiz gehiago.

Ekain Olaetxea



ZU BAI MARGOLARI!

